


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004ko OTSAILA

Euskal AEko industri jarduera %4,6 hazi zen 2004ko otsailean

Petrolioia fintzea eta Energia elektrikoa, gasa eta ura sektoreen urte arteko bilakaerak eragina izan zuen Produkzioaren Indize Orokorrean.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko otsailean, %4,6 hazi zen Euskal AEko industri jarduera, balio absolututan, 2003ko hil beraren aldean. Lan-egutegiaren balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza %2,2koa izan zen, 2004ko otsailak 2003koak baino lanegun bat gehiago izan zuelako. Urteko lehenengo bi hilabeteetako hazkunde metatua %2,9an kokatu zen, aurreko urteko hil beraren aldean.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



(*) 2004ko urtarril-otsaileko urte arteko hazkundera.

Iturria: EUSTAT

2004ko otsailean, urte arteko aldakuntzarik positiboena, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *petrolioia fintzea* (%100,3), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%17,7), *kautxua eta plastikoa* (%7,5), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%4,8) eta *garraio-materiala* (%4,7) arloei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-15,8), *janari-industria* (%-8,9), *bestelako manufakturak* (%-8,5) eta *material elektrikoa* (%-1,8) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo bi hilabeteetan (2004ko urtarril-otsaila 2003ko urtarril-otsailaren aldean), hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *petrolioia fintzea* (%38,2), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%24,4), *kautxua eta plastikoa* (%4,8) eta *metalgintza eta metalezko gaiak* (%3,5) arloei, besteak beste. Tasa metaturik

negatiboenak, berriz, honako hauek izan zituzten: *larruaren eta oinetako en industria* (%-14,6), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-9,7), *janari-industria* (%-8,7), *bestelako en manufakturak* (%-8,7) eta *ez-metalezko industria* (%-5,2) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapen berria, 2004ko otsailan, nabarmen igo zen *energiaren* urte arteko tasa (%31,7), apalago *bitarteko ondasunena* (%4,9) eta apur bat *ekipo-ondasunena* (%0,9). Jaitsi egin ziren, oster, kontsumo-ondasunak orokorrean (%-5,4), kontsumo-ondasun iraunkorren osagaia (%-6,9) eta kontsumo-ondasun ez-iraunkorrena (%-4,6) ere, eta hori guztia 2003ko otsailaren aldean.

Lurralde historikoki, Indize Orokorraren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten; balio absolututan, %7,2 hazi zen Bizkaian, %5,1 Araban eta %1,4 Gipuzkoan. Urteko lehenengo bi hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabari eta Gipuzkoari egokitu zitzaizkien, %3,2 bi kasuetan. Bizkaia, aldiz, %2,4ko hazkunde arinagoa izan zuen aldi berean.

Taula: 2004ko OTSAILA. Euskal AEko Industri Produktzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004ko otsaileko aldakuntza-tasak		2003ko otsaileko aldakuntza-tasak	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	4,6	2,2	2,0	2,0
Araba	5,1	3,8	2,6	2,6
Bizkaia	7,2	3,9	0,0	0,0
Gipuzkoa	1,4	-0,5	3,9	3,9

(*) egutegiaren eragina zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Ohar metodologikoa:

2004ko otsaileko Indizea 2000 oinarri berriarekin egin da, aurreko 1995 oinarriari lotuta. Oinarri aldaketa honek, beste abantaila batzuen artean honakoa dakar: Euskal AEko industria-sektoreko enpresa informatzaileen eta egindako produktuen ordezkatze-panela eguneratzea, eta kopurua eta ondorioz estaldura nabarmen gehitzea.

2000 oinarriko serie berria aurreko 1995 oinarriarekin lotu da, analistek eta erabiltzaileek indize horren hileroko datuen jarraipena egiteko aukera izan dezaten, etenik gabe 1995eko urtariletik. Gainera, lehenengo aldiz, Europako Batzordearen 586/2001 Erregelamenduko (EB) ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapen berria erabili da.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es